EUS | ES

# ARABAKO ERRIOXAKO MENDI-IBILBIDEAK



# RUTAS DE SENDERISMO POR RIOJA ALAVESA

ARDOAREN IBILBIDEA ARABAR · ERRIOXA
RUTA DEL VINO RIOJA · ALAVESA

BIOSPHERE certified destination · Ruta del Vino Rioja Alavesa miembro institucional Red DTI · etikoa Turismo Euskadi 0000045

## A
## SAMANIEGO

+290m malda / desnivel · 2h denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 8,93 km




Ibilbide laburra eta horren leuntasuna dela eta, mundu guztiarentzat egokia da. Nola oinez hala bizikletaz Arabako Errioxa gainontzeko Arabar lurretatik bereizten duen mendizerraz gozatzeko aukera izanen duzu. Mendizerra horrek babesten du Arabako Errioxa hezetasun, hotz eta ipar euritik.

*Ruta apta para todo tipo de públicos por su suavidad y su corto recorrido. Tanto a pie como en bicicleta podrás disfrutar de la Sierra que separa Rioja Alavesa del resto de Álava, protegiéndola de la humedad, frío y lluvia del norte.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: SAMANIEGOKO JAUREGIA/*PALACIO DE SAMANIEGO*



## C
## SAMANIEGO-LEZA-SAMANIEGO

+1.268 m malda / desnivel · 6h denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 20,1 km






Mendi magalak inguratzen dituen ibilbide honek Arabako Errioxako bitarteko adierazgarrienetako bat erakutsiko dizu: Sotilloko Trikuharria. Eta baita eskualdeko erdiguneko bi herri ere. Bai irteeran bai iristean, bi baseliza ederrek agurtuko gaituzte.

*Rodeando las faldas del monte, esta ruta te descubrirá uno de los recursos más emblemáticos de Rioja Alavesa: el Dolmen del Sotillo. Así como dos de las localidades más céntricas de la comarca. Tanto en la salida como en la llegada, dos preciosas ermitas nos darán la bienvenida y la despedida respectivamente.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
SAMANIEGOKO JAUREGIA
*PALACIO DE SAMANIEGO*

## D
## LEZA

+266m malda / desnivel · 1h 15´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 5,5 km




Bisita ezazu "La Lombilla", Lezako upategi gehienak hartzen dituen muinoa. Ehun urtetik gorako erkametzez inguraturiko otorduak egiteko gunea ikusiko duzu, horixe da, Artadiarekin batera, Arabako Errioxako berezko landaretzaren azken lekukoa. Mediterraneoko faunaren babesleku nagusiak dira.

*Visita "La Lombilla", una pequeña colina en la que se encuentran la gran mayoría de las bodegas de Leza. Verás un merendero rodeado de quejigos centenarios que, junto a El Encinedo son los últimos vestigios de la vegetación original de Rioja Alavesa. Constituyen el principal refugio de la fauna mediterránea.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: UDALETXEKO ENPARANTZA/*PLAZA DEL AYUNTAMIENTO*



## E NAVARIDAS
## NAVARIDASKO ONDAREA
## PATRIMONIO DE NAVARIDAS

+377 m malda / desnivel · 2h 45´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 11 km




Jauregi bat, baseliza, eliza, edateko ura zerion iturri zaharra, aztarnategi bat, ongi zaindutako txabola, artadi eremuak eta urmael batek osatzen dute hiribilduaren ondare gehiena zeharkatzen duen ibilbide hori.

*Un palacio, la ermita, la iglesia, una fuente vieja que abastecía de agua potable, un yacimiento, una choza muy bien conservada, una zona de carrascal y una laguna conforman esta ruta que recorre la mayoría del patrimonio de la villa.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
HERRIKO EDANLEKUA
*PILÓN (NAVARIDAS)*



## G NAVARIDAS
## CASTEJON GAINA AZTARNATEGIA
## YACIMIENTO ALTO CASTEJÓN

+222 m malda / desnivel · 1h 35´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 4,04 km






Ondare Kultural izendatutako eremu arkeologikoa. Monumentu Multzotzat hartua. 16 hektarea inguru ditu eta muinoa eta hurbileko ingurua hartzen ditu. Castejon Gainako Interpretatzeko Zentrotik abiatu behar da.

*Zona arqueológica declarada Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, tiene unas dimensiones en torno a 16 hectáreas, ocupa el cerro y su entorno inmediato. Se parte del Centro de Interpretación del Alto de Castejón.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
HERRIKO EDANLEKUA
*PILÓN (NAVARIDAS)*

## INTRODUCCIÓN · SARRERA

Hona hemen **18 bidexka eta ibilbide** Arabako Errioxa beste era batean ezagutzeko. Askotariko bideak, basoak, urmaelak, trikuharriak, leizeak, ibaiak, baselizak, Erdi Aroko herriak, hegaztiak, tontorrak eta gure eskualdeko ikusgarriena den hori ezagutzera eramango zaituztenak, paisaia aldakor hori, gehienetan mahastiak eta olibondoak tarteka dituela.

**Familientzako ibilbideak** aurkituko dituzue, aisi eremuetan zeuenekin gozatu ahal izateko, publiko orori zuzendutako ibilbideak ere bai, edonorentzat egokiak eta ahalegin handiegirik eskatzen ez dutenak; eta beste batzuk, adituei bideratuak eta, bai luzeragatik bai zailtasunagatik, mendi-xenda zaletasunean eskarmentua eskatzen dutenak.

Aukera ezazue gustukoena, jantzi arropa erosoa eta botak eta goza ezazue benetako jendearekin harremanetan eta gure gastronomia aberatsa dastatzen. Bizi **bizipen aparta** Arabako Errioxan.

*Te presentamos **18 senderos y rutas** que te ayudarán a descubrir de una manera diferente Rioja Alavesa. Caminos variados que nos descubren bosques, lagunas, dólmenes, cuevas, ríos, ermitas, villas medievales, aves, cimas y lo más espectacular de nuestra comarca: el paisaje cambiante salpicado de viñas y olivos en su gran mayoría.*

*Encontrarás **paseos familiares** que atraviesan espacios de esparcimiento en los que disfrutar con los tuyos, también recorridos dirigidos al **público general**, aptos para todo el mundo, cuyo recorrido no supone un gran esfuerzo; y otros destinados a los **expertos**, en los que se requiere experiencia en la práctica del senderismo, ya sea por su dureza o por su distancia.*

*Elige el que más te guste, ponte ropa cómoda, las botas y disfruta del contacto con la gente auténtica y de una rica gastronomía. Vive Rioja Alavesa a través de **una experiencia única**.*



## H
## NAVARIDAS-ELCIEGO-LAGUARDIA-PÁGANOS-LEZA

+492 m malda / desnivel · 6h denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 22 km




Arabako Errioxako bost udalerri zeharkatzen ditu ibilaldi honek. Zenbait paisaia, mahasti itsasoak, ondare oparoa eta ezin konta ahala upategi zeharka itzazu, gainera, upategi desberdinak ikusiko dituzu: abangoardiakoak, kalatuetakoak, familiarrak... Bizikletaz egitea gomendatzen da.

*Ruta que recorre cinco de los municipios de Rioja Alavesa. Atraviesa paisaje diverso, mares de viñedos, un rico patrimonio e infinidad de bodegas de diferentes tipologías: de vanguardia, calados, familiares... Recomendable hacerla en bicicleta.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: HERRIKO EDANLEKUA/*PILÓN (NAVARIDAS)*



## I VILLABUENA DE ÁLAVA/ESKUERNAGA
## TRIKUHARRIAREN IBILBIDEA
## RUTA DEL DOLMEN

+88 m malda / desnivel · 35´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 2,28 km




Ibilbide zirkular honek San Andres Elizan du hasiera eta mahasti artean egiten du aurrera Montecilloko Trikuharrira iritsi arte. Honen ostean, estetika megalitikoan oinarritutako Ibaola Harriak hilerri ateora hurbiltzen da. Bidexka honek Eskuernagarantz eramanen gaitu berriro ere Herrera errekaren paraleloan.

*Este recorrido circular comienza en la Iglesia de San Andrés y discurre entre viñedos hasta llegar al Dolmen del Montecillo, para posteriormente acercarse al singular cementerio ateo Ibaola Harriak, basado en la estética megalítica. El sendero nos conducirá de nuevo hacia Villabuena de Álava/Eskuernaga de forma paralela al Arroyo Herrera.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
SAN ANDRÉS ELIZA/*IGLESIA DE SAN ANDRÉS*



## YÉCORA/IEKORA
## BERCIJANAKO IBILBIDE BERDEA
## SENDA VERDE DE BERCIJANA

+149 m malda / desnivel · 50´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 4,13 km






Leon Dormido (1245m.) eta mahatsondo, zereal eta olibondo soro erraldoien aurrean Bercijanako Ama Birjinaren baselizara iritsiko gara (XIII. eta XIV. mendeak). Hasieran Iturri Zaharra aurkituko dugu, edateko ur-horniketarako iturri zaharra.

*Con vistas al León Dormido (1245m.) y a campos predominantes de vid, cereal y olivos, alcanzaremos la ermita de Nuestra Señora de Bercijana (s. XIII y XIV). En el inicio descubriremos la Fuente Vieja, un ejemplar muy antiguo de abastecimiento de agua potable.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
ITURRI ZAHARRA/*FUENTE VIEJA*

## ELVILLAR/BILAR-KRIPAN-LANCIEGO/LANTZIEKO-VIÑASPRE/BINASPERI
## IBILBIDE BERDE KULTURALA
## RUTA VERDE CULTURAL

+801 m malda / desnivel · 7h 30´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 29,2 km




Ibilbide honek Arabako Errioxako paisaia ederra erakutsiko digu (basoak, zereal soroak, mahastiak, olibadiak...) eta, aldi berean, arkitektura tradizionala eta ondare arkitektoniko historikoaren adibideak ezagutzeko aukera emanen digu (trikuharriak, mahatsondoak gordetzeko etxolak, zubiak, iturriak, garbitokiak, pikota-bilkariak...). Horiek guztiek gizakiaren eta ingurumenaren arteko harreman oparo eta zabala islatzen dute.

*Este recorrido nos muestra el bello paisaje de Rioja Alavesa (bosques, campos de cereal, viñedos, olivares...) a la vez que nos permite conocer muchos ejemplos de arquitectura tradicional y patrimonio histórico arquitectónico (dólmenes, chozos-guardaviñas, puentes, fuentes, lavaderos, rollos-picotas...), que reflejan la extensa y rica relación entre ser humano y medio ambiente.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: HERRIKO ENPARANTZA/*PLAZA (LANCIEGO)*



## LABRAZA
## DUEÑASKO PINUDIA
## PINAR DE DUEÑAS

+172 m malda / desnivel · 2h denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 7 km




Euskadin, eta Iberiar Penintsulako ipar-mendebaldean, kaltegarritzat hartua den espezie baten masa natural bakarra da: Aleppo pinua (Pinus halepensis). Bizilagunek egurra egiteko baliatzen dute. Horrez gain, baso horrek txaparrak, ipuruak eta arteak ere baditu, eta, halaber, landare usaintsuak, erromeroa, ezkaia, izpilikua, txilarra eta azeri-mahatsa besteak beste.

*Constituye la única masa natural de una especie catalogada como vulnerable: el pino carrasco (Pinus halepensis), en todo Euskadi y su presencia más noroccidental en la Península Ibérica. Aprovechado para leña por los vecinos, este bosque presenta, además, una interesante diversidad con coscojas, enebros y encinas, así como plantas aromáticas como romero, tomillo, lavanda, brezo, genista, gayuba y otras.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
PARKING: EKIALDETIK HASI/*COMENZAR AL ESTE*



## GOMENDIOAK · CONSEJOS

| GOMENDIOAK | CONSEJOS |
|---|---|
| Seinaleak errespetatu. | *Respeta las señales.* |
| Natura errespetatu eta zaindu (landaretza, fauna, ibaiak...). Ez hondatu, aldatu edota bota natura inguruko elementurik. | *Respeta y cuida la naturaleza (flora, fauna, ríos...). No alteres, modifiques y/o retires elementos del medio natural.* |
| Ez zaborrik, musuzapirik edo azalik lurperatu. Hurbilen duzun edukiontzira bota. | *No tires ni entierres basura, pañuelos o peladuras. Deposítalas en un contenedor cercano.* |
| Bidean aurkitzen dituzun atakak eta hesiak itxi. | *Cierra los portones o verjas que te encuentres en el camino.* |
| Eguraldi-iragarpenak kontsultatu. | *Consulta las predicciones meteorológicas.* |
| Ura, telefonoa eta elikagairen bat eraman alboan. | *Lleva agua, teléfono y comida.* |
| Sasoiaren araberako arropa eta oinetako erosoak jantzi. | *Vístete con ropa y calzado cómodo y acorde a la temporada.* |
| Prismatikoak eta kolore bizikoak ez diren arropak jantzi, fauna hobeto behatzeko. | *Lleva prismáticos y prendas de colores no llamativos que faciliten la observación de la fauna.* |
| Udan, tenperatura altuetatik babestu. | *En verano protégete de las altas temperaturas.* |
| Isilik ibili eta animalien ohiturak ikasi. | *Pasea en silencio y conoce los hábitos de los animales.* |
| Naturaz eta Arabako Errioxak eskaintzen dizunaz gozatu: bertako jende jatorraz, kultur ondareaz eta gastronomiaz. | *Disfruta de la naturaleza y de lo que te ofrece Rioja Alavesa: de sus gentes auténticas, de su patrimonio cultural y de su gastronomía.* |
| Larrialdi kasuan, deitu 112 telefono-zenbakira. | *En caso de emergencia llama a: 112* |

## LAGUARDIA
## LAGUARDIAKO AINTZIRAGUNEA
## COMPLEJO LAGUNAR DE LAGUARDIA

+232 m malda / desnivel · 2h 40´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 14,2 km




Carralogroño, Carravalseca, Musco eta El Prao de la Paúleko putzuek osatzen dute urmael-gune hau. Ramsar zerrendak munduko heze gune garrantzitsuenen artean sartu du, Natura 2000 Europako Sare Ekologikoan; bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak babestutako biotopoa ere bada.

*Carralogroño, Carravalseca, Musco y la balsa de El Prao de la Paúl conforman este Complejo Lagunar, incluido en la lista Ramsar entre los humedales más importantes del mundo, en la Red Ecológica Europea Natura 2000; son además, biotopo protegido por la Comunidad Autónoma Vasca.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: IGOGAILUA/*ASCENSOR (LAGUARDIA)*



## ELCIEGO
## MAHASTI ARTEAN
## ENTRE VIÑAS

+299 m malda / desnivel · 2h 20´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 8,82 km






Urteko sasoiak paisaia baldintzatzen du, tonu marroietatik berde bizietara pasa daiteke. Ibilbide horrek aldaketa horietaz gozatzeko aukera emanen dizu, eta baita Xabier de Arízaga mediterraneoko lorategiaz ere. Lorategi horrek, Elciego eta Arabako Errioxako flora tipikoaz disfrutatzen lagunduko digu.

*La época del año condiciona el paisaje que varía de tonos marrones a verdes intensos. Este recorrido te hará disfrutar de esos cambios y su jardín mediterráneo Xabier de Arízaga, que nos permiten disfrutar de la flora típica de Elciego y de Rioja Alavesa.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
JEAN PINEAU IBILBIDEA
*PASEO JEAN PINEAU*

## LABASTIDA/BASTIDA
## EBROKO IBILBIDEA
## RUTA DEL EBRO

nordic walking

+176 m malda / desnivel · 1h 45´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 8,83 km




Ibilaldi nordikoaren teknika garatzeko aukera ematen duen ibilbide erraza da, bai banaka bai taldeka. Ibilbidea Bastidako erdigunetik abiatzen da eta alde zaharra zeharkatu ondoren Ebro ibaiaren bazterren bila abiatzen da aldapa leun batean behera. Ibaiertzak jarraituko ditugu Gimileoren meandrora iritsi aurretik bidegurutze batean utzi arte. Ondoren, Solaguengo Bidetik itzuliko gara.

*Ruta asequible que permite desarrollar la técnica de la marcha nórdica tanto de manera individual como en grupo. La ruta parte del núcleo de Labastida/Bastida y tras atravesar su casco urbano va buscando en un suave descenso las riberas del río Ebro. Lo acompañaremos hasta dejarlo en un cruce antes del meandro de Gimileo para volver por el Camino de Solagüen.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*:
TOLOÑO ARKOA/*ARCO DEL TOLOÑO*



## LABASTIDA/BASTIDA
## SAN GINES BASELIZA
## ERMITA DE SAN GINÉS

nordic walking

+141 m malda / desnivel · 50´ denbora / tiempo · 1 2 3 4 maila / nivel · joan-etorria · ida y vuelta 4,2 km




Toloñoko Arkutik abiatuta, Bastidako alde zaharreko goiko aldetik, hain zuzen ere, desnibel gutxiko ibilbide zirkular eder honek San Ginesen baseliza eta honen jolas-gunera eramanen gaitu Machimbraoko bidetik. Bide honetan barrena bertako artista baten hainbat eskultura ikusiko ditugu.

*Partiendo del Arco de Toloño, ubicado en la parte alta del casco histórico de Labastida/Bastida, este bonito recorrido circular, con muy poco desnivel, nos llevará hasta la Ermita de San Ginés y su área recreativa por el camino del Machimbrao, que nos muestra a lo largo del mismo diversas esculturas de un artista local.*

● Irteera puntua/*Punto de salida*: TOLOÑO ARKOA/*ARCO DEL TOLOÑO*



www.rutadelvinoderiojaalavesa.com

RIOJA ALAVESA ARABAKO ERRIOXA

CUADRILLA DE RIOJA ALAVESA
ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

araba álava foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKADI BASQUE COUNTRY Gastronomika

www.visitriojaalavesa.com


Bidaia-agentziaren identifikazio-kodea / Código Identificación Agencia de Viajes: CIE2539
Erregistro zenbakia / Número de registro: AVI00130

